

# getxoBerri



Getxo

bizi ezazu



#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1447 zb.

www.getxo.eus

getxoberri@getxo.eus

Martxoak 16

>> Martxoak 26

2017

## / Nabarmentzekoak

> Tailerrak eta jokuak gaikako bilketa eta berziklatzea bultzatzeko (2. or.)

> Korrika ekitaldiak Getxon (3. or.)

> Aste Santuko kirol campusak (4. or.)

Ondarreta abesbatzak CD berri bat argitaratu du bere 50. urteurrena dela eta (3. or.)



**Hitzaldia.** Hilak 17, ostirala, 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Cuerda punteada y teclado", Josetxu Bretos Musikereko irakaslearen eskutik. Zikloa: Mendebaldeko musika-tresnen garapena. 3€.

**Antzerkia.** Hilak 25, larunbata, 20:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Desoxirribonucleico (ADN)" Glu Glu Produccionesen eskutik. 12€.

A-  
GENDA

Erroldatutakoez gain, udalerrian lan egiten dutenek ere hartu ahal izango dute

## Saharar ume bat udan hartzeko izenemateak

Apirilaren 15era arte zabalik izango da uztailean eta abuztuan etxean saharar ume bat hartzeko izena emateko epea. Ekimena ATFAL Sahararen aldeko Getxoko Elkarteak antolatzen du, Udalarekin elkarlanean, *Oporrak bakean* kanpainaren barruan. *Uda honetan haur saharar bat etxean hartu* lelopean, 10 eta 12 urte bitarteko saharar haurrei udan Arge-  
liako Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetako errealitate gordina ahaztu ahal izateko aukera eskaintzen die programak. Oraingoan, eta berritasuna bezala, erroldatutakoez gain, udalerrian lan egiten duten pertsonak ere hartu ahal izango dute etxean haur bat. Helburuen artean daude azterketa mediko orokorra, begietakoa eta hortzetakoa ahalbidetzea; beren bizilekuko klima gogorra pairatzea ekiditea, tenperaturak 55°Cra iritsi ahal dire-

lako; trukaketa kulturala, Saharar herriaren egoeraz sentsibilizatzea. Udan zehar zenbait jarduera egingo dituzte (txangoak, zaldi gainean ibiltzea, Saharren eguna Algortako jaietan, eta abar) eta familien arteko aldi bereko topaketa boluntarioak, iritziak trukatzeko. Begirale bat egongo da, edozer gauza gertatuz gero familiek berarengana jo dezaten, eta saharar umei eta beraiek hartzen dituzten familiei Getxo Kirolakeko txartela eman-  
go zaie, bazkide ez badira. Udalak, besteak beste, diru-laguntza ematen du bidaiaren eta ekitaldien gastuetarako. Izen-ematea eta informazioa: 658 751 359 / [atfalgetxo@gmail.com](mailto:atfalgetxo@gmail.com), eta 94 466 00 17 / [lankide-tza@getxo.net](http://lankide-tza@getxo.net).

**Sahararako karabanaren balantzea**  
Bestalde, ATFAL elkarteak 7.347 kilo jangarri eta higiene produktu batzea lortu du, urteroko Karabanarekin saharar errefuxiatuen kanpamenduetara bildaltzeko. Bilketa heziketa zentroan, Getxo Kirolaken, Lantegi Batuak entitatean eta Artea merkataritza zentroan burutu da.



## Apirilaren 12ra arte dago zabalik "PLAZA" erakusketa

Apirilaren 12ra arte dago zabalik jendearentzat PLAZA izeneko erakusketa, Romo Kultur Etxea (RKE) eta bere ingurunea egokitzeko proiektua ezagutzera emateko. Horren bitartez, proiektua hurbildu nahi zaie Getxoko bizilagunei, eraikinaren egitura eta erabilerak nahiz plaza berriaren eta bere inguruaren aldaketak hurbiletik ezagutzeko aukera izan dezaten.

Erakusketara egindako bisitan, Imanol Landa alkateak gogoratu zuenez, proiektuak "Romoko balio urbanistikoak indartuko ditu, pertsonentzako espazio handiagoak eta berdegune gehiago sortuz, eta hesi bisualak kenduz; plaza beti izan da eta izango da topaleku eta ospakizunetarako tokia".

Erakusketara hurbiltzen direnek beren marka utzi ahal izango dute, kolore-

tako mapa batean, Romo Kultur Etxeko guneekiko sortutako interesaren arabera. Halaber, bisitariak eraikinaren barrualdea nolakoa izango den ezagutu ahal izango dute, proiektuari buruzko infografiak ikusi eta plaza egokitzeko erabiliko diren materialak ukitu ere. Horrez gainera, plazak uretan zehar



## John Abercrombie eta Dianne Reeves Getxoko Jazzaldian

Ekainaren 28tik uztailearen 1era izango den Getxoko 41. Jazzaldia dagoeneko artista nagusietako bi ditu: ekainaren 29an, ostegunean, eskarmentu handiko John Abercrombie gitarra-jotzailea jardungo da eta uztailearen 1ean, larunbatean, Dianne Reevesen txanda izango da, egungo jazzaren ahots handienetarikoa bat, hain zuzen ere. Biotz Alai plazan izango den saio nagusien eskaintza beste hiru kontzerturekin osatuko da.

John Abercrombie (1944; Port Chester, Nueva York) jazz eszenako gitarra-maisu ospetsuenetarikoa bat da. Berklee College of Music ospetsuan ikasi zuen, hainbat banda nabarmenetan jo du eta 70eko hamarkadan bakarka jotzen hasi zen, *Timeless* izeneko diskoarekin. 90eko hamarkadan eta hurrengo urteetan Abercrombiek eta jazz munduko artista handiekin oihartzun handiko lanak kaleratzen jarraitu du, adibidez, *39 Steps*.

Bestalde, Dianne Reeves (1956, Detroit) bost Grammy sari eskuratu ditu, horietako hiru jarraian irabazitakoak 2001., 2002. eta 2003. urteetan, ahots Interpretazio Oneneko sailean. Izen handiko artista eta talderekin aritu da hori, esaterako Wynton Marsalis, Chicagoko Orkestra Sinfonikoa eta Berlin-  
go Filarmonikoarekin.

**Taldeen Lehiaketa**  
Taldeen Lehiaketari dagokionez, aurtengo honako talde hauek ariko dira: Adam Jarzmik Quintet (Polonia), Malstrom (Alemania) eta jatorri desberdinetako Sun-Mi Hong Quintet (Hego Korea-Italia-Erresuma Batua) eta Claudio Jr. de Rosa Jazz Quartet (Italia-Grezia-Espainia-Lituania).



### MARTXOAK 16 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. Villamonteko haur-liburutegian, 18:00etan, "Maleta kontuak" Maider Galarzarekin. Euskaraz. 4 urtetik gora. Sarrera dohainik.

Literatura solasaldia. Algortako Kasinon, 19:45ean, Kultur Etxearen Sortze-idazketa tailerraren eskutik, Marta Sanzen "Farándula" liburuari buruzko solasaldia. Sarrera dohainik.

Getxon Zuzenean. Areetako El Comercio tabernan, 20:00etan, Cloverwind (folka). Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako giza- eta kultura-elkarte. Hitzaldia: "Elkagaiengana intolerantziak". Hitzalaria: Mónica Mellid Bilbao (Nutrizionista). 18:15ean, Romoko San Jose elizako egoitzan.

### MARTXOAK 17 OSTIRALA

Cinema Paradiso. Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, jatorrizko bertsoan azpizatzeekin, "Corazón gigante" filmaren proiektio eta foruma. Zuzendaria: Dagur Kári. Hiz: islandiera. Adin guztientzat. Sarrera: 2,90€.

Hitzaldia. "Cuerda punteada y teclado", Josexu Bretos Musikeneko irakaslearen eskutik. 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Zikloa: Mendebaldeko musika-tresnen garapena. 3€.

### MARTXOAK 18 LARUNBATA

Live painting session. Itziar Nazabalen "Loreen sentsualitatea" erakusketa dela eta, pintura-saioa zuzenean Torre-aretoan, 19:00etan.

Poesia eta musika errezitaldia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "España ingobernable" (testu eta abesti haserretuak eta haserregarriak), Alberto San Juan eta Fernando Egozcuerearen eskutik. Sarrera: 12€.

San Patrizio Eguna: folk kontzertua. Algortako The Piper's Irish pubean, 22:00etan, Barcelona Bluegrass Banda taldearen emanaldia. Sarrera dohainik.

### MARTXOAK 19 IGANDEA

Haurrentzako zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Trolls". Adin guztientzat. Sarrera: 2,10€.

### MARTXOAK 20 ASTELEHENA

Odol-ateratzeak. Algortako Geltokia plazan, goizean eta 16:30etik 21:00etara, eta Bidezabalgo osasun

zentroan, 16:30etik 21:00etara. Mugabarik. Norbanakoen trebatze eta garapenerako Elkarte. Operaren bilakaerari buruzko triptikoa. Hitzalaria: José Quisilant Montero. Bigarren hitzaldia: "Puccini eta Wagner". 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

### MARTXOAK 21 ASTEARTEA

Odol-ateratzea. Algortako Erredentorearen aparkalekuan, 16:30etik 21:00etara.

### MARTXOAK 23 OSTEGUNA

Odol-ateratzea. Areetako Geltokia plazan, 16:30etik 21:00etara.

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, Ricardo Villarren "Paisajes cercanos" izeneko akuarela-erakusketa. Apirilaren 5era arte.

Getxon Zuzenean. Algortako Jolasurre tabernan, 20:00etan, Peter Abels (kantautorea). Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako giza- eta kultura-elkarte. Hitzaldia: "Gizakien salerosketaren biktimak diren emakumeak, emakume errefuxiatuak. Nazioarteko babesaren eronkak". Hitzalaria: Verónica Álvarez García (CEAR EUSKADI). 18:15ean, Romoko San Jose elizako egoitzan. Sarrera dohainik.

### MARTXOAK 24 OSTIRALA

Zine Kluba. Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "El hombre de las mil caras" filmaren proiektio eta foruma. Zuzendaria: Alberto Rodríguez. 7 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

Hitzaldia. "Cuerda-arco", Josexu Bretos Musikeneko irakaslearen eskutik. 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Zikloa: Mendebaldeko musika-tresnen garapena. 3€.

### MARTXOAK 25 LARUNBATA

Ipuin kontaketa: Storytime. Algortako Kultur Etxean, 11:00etan, Kids&Us Getxo-Algortaren eskutik, "The dress maker". Ingelese. Familia osoarentzat. Sarrera: dohainik.

Antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "Desoxirribonucleico (ADN)" Glu Glu Produccionesen eskutik. 12€.

### MARTXOAK 26 IGANDEA

Dantza. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "2 x 4", El lagarto bailaren eskutik. Familia osoarentzat. 5€.

Haurrentzako tailerra. Itziar Nazabalen "Loreen sentsualitatea" erakusketa dela eta, haurrentzako pintura tailerra, Torre-aretoan, 12:00etan. Leku mugatua. Aurretiko izen-ematea Algortako Kultur Etxean edo, egunean bertan, erakustaretoan (lekua badago).

# Tailerrak eta jolasak gaikako bilketa eta berziklatzea bultzatzeko

Martxoko azken bi asteburuetan kontzientziazio kanpaina berri bat egingo da Getxon hiritar guztiei zuzenduta, hondakinen gaikako bilketa eta berziklatzea bultzatzeko asmoz. Ingurumen Arloak antolatuta, Ecoembes eta Ecodioren laguntzarekin, parte-hartzea bultzatuz, birziklatzeak hainbat alorretan -partikularrean, sozialean, ekonomikoan eta ingurumenean- dituen abantaileri buruzko informazioa eskainiko da (esate baterako, beirazko hiru botila birziklatuz urtebetez Smartphone bat kargatzeko beste energia aurrezten dugu). Halaber, edukiontzietan (berdean, urdinean eta horian) jaso daitezkeen hondakinen tipologia osoa zehaztuko da.



buruzko erakusketa bisitatzeko aukera izango den.

Horrez gainera, hondakinak gaika biltzeko (edukiontzi horia, berdea eta urdina) jolas bat antolatuko da, baita asmakizun jolas bat ere (irabazleak bertako produktuez betetako otzara bat jasoko du).

Areetan, Eskoletako plazan kokatuko dira karpak ostegunean, hilak 16, 10:30etik 14:00etara, eta Geltokia plazan ostiralean, hilak 17, 17:00etatik

20:30era. Romon, hilaren 23an, osteguna, izango da, Santa Eugenia plazan, 10:30etik 14:00etara. Eta Algortan, San Nikolas plazan larunbat honetan, hilak 18, 11:00etatik 14:30era; Bidezabalen, hilaren 24an, ostirala, 17:00etatik 20:30era; eta Geltokia plazan, hilaren 25ean, larunbata, 11:00etatik 14:30era. Kanpainaren hasieran informazio-olanak jarriko dira erdialdeko eraikin publikoetan.

## Jarduerak eta egunak

Bi karpa izango dira euskarri nagusiak: Ecodioren bata, non alezko apaingarri eta txapa eta imanak egiteko tailerrak antolatuko diren; eta Ecoembesena bestea, non edukiontzi horian bota beharreko hondakinei

# 391.737€ GKEentzako diru-laguntzetarako

Getxok Nazio Batuen Erakundeak erabakitako Garapen Iraunkorreko Helburuen aldeko apustua egiten du Garapenekeko Lankidetzarako proiektuen urteroko diru-laguntzen

deialdian, eta eskakizunak aurkezteko epea apirilaren 18an amaituko da. Aurten Udalak 391.737€ banatuko ditu ohiko hiru diru-laguntzen ildoan ar-

Lehenengo diru-laguntza ildoak 320.000€ izango ditu, txirotutako herrialdeetan aurrera eramaten ari diren proiektuak finantzatzeko. Bigarrenez, 56.737€ herritar getxotarrei zuzendutako Sentsibilizazio eta Garapenekeko Hezkuntzako proiektuen artean banatuko ditu Udalak. Azken atalari dagokionez, 12.000€, krisi egoerei aurre egiteko izango dira (eskatzeko epea abenduaren 1ean amaituko da) eta 3.000€ adingabeen harrera programe-tarako.

Diru-laguntzei buruzko informazio gehiago [www.getxo.eus/eu/cooperacion-al-desarrollo/subvenciones](http://www.getxo.eus/eu/cooperacion-al-desarrollo/subvenciones) helbidean. Eskaerak Udaleko Administrazio Elektronikoko Bulegoan aurkeztu beharko dira: <https://eudala.getxo.eus/SolucionUnica/EGestiones/InicioOAE.aspx>.

## IV. Berdintasun Planaren aurkezpena

Udalak 2017-2020rako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren aurkezpena antolatu du herritarrentzat, datorren ostegunean, hilaren 23an, 18:30ean, Fadura kiroldegiko batzar aretoan. Plana otsailaren osoko bilkuran onartu zen, eta Getxoko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin ondoren idatzi da Plana.

Planaren edukia ezagutu nahi duten pertsonak udal webgurena jo dezakete: <http://www.getxo.eus/eu/igualdad/enlaces-de-interes>.



## Memoria Plazaren azken egunak

Datorren igandera arte, hilak 19, bisitatu ahal izango da, Areetako Geltokia plazan, Gogora institutuaren aipatutako erakusketa, Euskadin azken urteotan gertatutakoei buruzko lekukotzak biltzea eta azaltzea, betiere memoria plural eta partekatu bat eraikitzeko asmoz helburua duena. Erakusketa bisitatzeko ordutegia da: 09:00etatik 15:00ak arte eta 16:00etatik 20:00ak arte (larunbatean eta igandean 10:00etatik 20:00ak arte).



## Getxo Lagunkoiaren lan taldeak biltzen hasi dira

100 bat pertsona nagusik parte hartu dute aste honetan Getxo Lagunkoiaren lan taldeetan. Helburua da udalerraren pertsona nagusiekiko lagunkotasun maila aditzera emango duen azterketa egitea, eta horretarako, parte hartzaileek, besteak beste, garraio, etxebizitza, begirune, partaidetza eta komunikazio gaiak buruzko ikuspuntua eman dute.



## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK MARTXOAREN 16TIK 26RA ARTE

Egunero:

22:00-09:00: ALZOLA. Arene 4, Algorta.

Hurrengo farmaziak asteburuetan ere zabalik egongo dira:

18 (LR) 09:00-22:00: JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. LOPEZ-LINARES. Kasune 10 (Salsiduko kantoiari), Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

10:00-22:00: BAYANO. Ibaigane 9, Areeta. ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari.

19 (IG) 09:00-13:30: EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

09:00-22:00: ARRIOLA. Amaia 29, Areeta. JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

25 (LR) 09:00-22:00: JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. LOPEZ-LINARES. Kasune 10 (Salsiduko kantoiari), Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

10:00-22:00: BAYANO. Ibaigane 9, Areeta. ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari.

26 (IG) 09:00-13:30: GALARZA. Aingeruaren etorbidea 2, Algorta.

09:00-22:00: HORMAECHEA. Avda. Neguri, 15. JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

gunduko diogu ikasketetan arrakasta izateko. Puri (psikologoa). Romo. Tel.: 687 000 650.

- Lizentziadunak, ingeleseko C1 eta EGA tituluekin, Lehen Hezkuntzako eta hizkuntzetako klaseak ematen ditu (First Certificate eta euskararen B2). Tel.: 627 849 277. Rakek.

- Neska arduratsua lan bila dabil etxeko lanak egiteko, umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbitzeko. Erreferentziak eta berehalako prestasuna. Tel.: 616 82 18 24.

## LANPOLTSA SALEROSKETA GALDUTAKOAK

- Errentan ematen dira lursailak ortu ludikoentzat, Larrañazubini. Tel.: 675 72 11 11.

- Ikasten ikasi. Zure seme-alabari la-

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragotzetasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri Getxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Komunikazioko zinegotzia: Amaia Agirre. Zuzendaria: Javier García.

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Erredakzioa: Nekane Ardanza,

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo.

e-posta: [getxoberri@getxo.eus](mailto:getxoberri@getxo.eus)

Arte arduradunak: Flash Composition SL

Inprimaketa: Editorial Iparraguirre S.A. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua

Gordailu legala: BI-388-87

Aurten, ekitaldi ugari eskainiko ditu

# Ondarreta abesbatzak CD berri bat argitaratu du bere 50. urteurrena dela eta

Areetako Ondarreta abesbatzak bere 50. urteurrena ospatuko du aurten. Hori dela eta, ekintza ugari antolatu ditu, besteak beste, CD berri bat eta 17 emanaldi musikal baino gehiago, tartean *Urrezko Ezteien* kontzertu berezia urriaren 27an, Bilboko Elkarte Filarmonikoan, Leioako Kantika Korala abesbatzarekin batera.

Ekimena aurkezteko prentsaurrekoan, Getxoko alkate Imanol Landak bere poza agertu zuen gure udalerrian hain errotuta dagoen elkartearekin data hori ospatzeagatik. Landaren hitzetan "50 urte betetzea, berez, arrakasta nabarmena da. Ondarreta Abesbatzak Getxorekiko duen konpromisoak Getxotar guztiak harrotasunez betetzen gaitu eta, uste dugu, Udalak neurri berean izan behar duela abesbatzarekiko konpromisoa. Horrela egin dugu eta horrela egiten jarraituko dugu, Ondarreta afizioa delako, musikarako maitasuna eta kantatzeko pasioa, baina gehienbat kalitate gizatiarra da, eta baita Getxorako bisita-txartel paregabea ere".

Jon Atxa Ondarreta abesbatzaren presidenteak, bere aldetik, Udalaren laguntza eskertu ondoren, azpimarratu zuen "aurten oso urte berezia da abesbatzarentzat, 50 urte betetzen ditugulako etengabeko jarduketan. Prestatu dugun egitaraua gure Urrezko Ezteiak ospatzera zuzenduta dago. Aurten gure emanaldi asko, beste urte batzuetan ohi-ko egitaraukoak, hainbat talderekin egingo ditugu, besteak beste, Santanderreko Coro Tomás Luis de Victoria, Suseganako (Italia) Corale San Salvatore, Oiongo Coro alavés Prudentzio Egunsentia, Bilboko Iralabarriko San Antonio abesbatza, Portugaleteko Santa María abesbatza, edo Sestaoko Orfeoia".



## Egitaraua

Aurten aurreikusi dituzten ekitaldien artean Jon Atxak azpimarratu zuen *ONDARRETA 1967-2017* izeneko oroitzapenezko CDaren argitalpena, Ama Mesedeetako elizako kriptan grabatua, abesbatzaren jatorria, Urdulizko Tio Pete estudioaren laguntza teknikoarekin. Diskoak, abesbatzaren historiaren bilduma ez izan arren, omenaldia egin nahi die taldetik hainbat hamarkadatan zehar pasatu direnei eta abesbatzaren duen errekonozimendu soziala lortzen lagundu dutenei. 1.000 ale argitaratu dituzte eta 8€tan salduko dira hainbat tokitan, besteak beste, Bizkaia Zubiko oroigarrien dendan edo posta elektronikoen bitartez, [contacto@coralondarreta.com](mailto:contacto@coralondarreta.com) (garraioa zorretan dela).

[ralondarreta.com](http://ralondarreta.com) (garraioa zorretan dela).

Era berean, apirilaren amaieran, kale-ratu eta jendaurrean aurkeztuko dute *Ondarreta 50 años* izeneko liburua. Bere egilea da Pablo Díaz-Guardamino eta bertan abesbatzak bizi izan dituen aro guztien ibilbide luzea eta zehatza egingo du, argazki eta dokumentazio ugaria erabiliz.

Maiatzean, abesbatzari dedikatutako zigilua eta zigilu-marka aurkeztuko dute Getxoko XXXIV. Filatelia-erakusketan, eta irailaren 21ean, jai batzordeak gonbidatuta, Areetako Mesedeetako jaietan, pregoia irakurriko dute. Irailaren 26an, Areetako Geltokia

plazan jarritako karpan, Peruko Alturas taldearekin batera *América Cantando Misa Criolla* izeneko kontzertua eskainiko dute.

Azkenik, urriaren 27an, Bilboko Elkarte Filarmonikoan, urtean zehar egingo den ekitaldiei amaiera emango diote. Bertan arituko dira Leioa Kantika Korala eta Ondarreta Abesbatza.

## Proiektuak

Ondarreta abesbatzak 1967ko irailaren 24an hasi zuen bere ibilbidea ondorengo helburuarekin: "Edozein jarduerak musikal praktikatzea, sustatzea eta gartzatzea, batez ere musika korala bere ikuspegi guztietan, emanaldiak eskaintzen dituzten leku guztietan Getxoren izena eta udalerrriaren kultura zabalduz". Hori guztia aurrera eramateko, haien ustetan beharrezkoak diren jarduerak guztiak egingo dituzte, besteak beste, musika zaleak erakarri, musika-trebakuntza, artxibo musikala sortu, mantendu eta aberastu eta ekitaldi musikalak antolatu eta zabaldu.

Bere 50. urteurrenarekin bat etorritik, Ondarreta-k haur-abiesbatza sortu nahi du, Romo-Areetako auzoetako eta inguruetako umeen interes musikalak asetzeko, abesbatzarako etorkizunean harrobia izango dena. Jon Atxak esan duenez "idea hori, gure historian zehar, hainbat alditan agertu da baina inoiz ez da gauzatu. Gure ideia da 7 eta 14 urte bitarteko umei zuzendutako abesbatza, eskolaz kanpoko jarduerak bezala pentsatua".

Gaur egun, abesbatzan, 58 pertsona daude: 17 soprano, 17 kontralto, 11 tenore eta 13 baxu. Haiei gehitu behar zaizkie zuzendaritza musikala, teknika bokalaren irakaslea eta piano-jotzailea. Informazio gehiago: [www.coralondarreta.com](http://www.coralondarreta.com).



## San Patricio kontzertua Barcelona Bluegrass Bandekin

Larunbatean, martxoak 18, 22:00etan, Patrizio Eguna dela eta, urteroko kontzertua izango da Algortako Piper's Irish Pubean. Lluís Gómez (banjoa) eta Joan Pau Cumellas (armonika) musikari bereziek Barcelona Bluegrass Band izeneko proiektua aurkeztuko dute, Miguel Talaverak (gitarra), Maribel Sánchezek (kontrabaxua) eta Oriol Sañak (bibolina) ere osatutakoa. Horiek guztiak adituak dira bluegrass estiloan eta beren lanetan musika irlandar, jazz eta bluesa batzen dira, iparraldeko Amerikako jatorria duen musika hori ukitu pertsonala emanez. Bakarrak dira herrialdean, eta gaur egun genero honetako Irlandako, Ingalaterrako, Holandako, Frantziako eta Txekiar Errepublikako jaialdietan ospea lortzen ari dira. Kontzerturako sarrerak doakoa izango da.

## KORRIKA EKITALDIK GETXON

### MARTXOAK 17

19:00–23:00: Getxon zehar: KALEJIRA MUSIKATUAK.

### MARTXOAK 24

20:00: Bodeguilla Butron tabernatik hasita (Algorta): BERTSO-KORRIKA. Bertsolariak: Arrate Illaro eta Inazio Vidal.

### MARTXOAK 25

10:00–14:00: Santa Eugenia plaza: MATERIAL SALMENTA

### MARTXOAK 26

18:00: Azebarri Kultur Elkarte (Algorta): MAHAI-JOLASAK EUSKARAZ: TIPI-TAPA KORRIKA!

### MARTXOAK 30 – ANDRA MARIKO KORRIKA TXIKIA

11:00: Andra Mari ikastetxetik hasita, KORRIKA TXIKIA + Ongi etorria Maidagan parkean.

### MARTXOAK 31 – HAURREN EGUNA

**Algorta:** 10:00: Fadura ikastetxetik hasita KORRIKA TXIKIA + Ongi etorria Algortako Geltokia plazan.

17:30–19:30: San Nikolas plazan MUSIKA, TAILERRAK ("Zirko Jaia" Arima) eta TXOKOLATADA

20:30: San Nikolas plazatik KORRIKA + POTEKO KARRADERAN  
**Romo:** 11:30: Artatza-Romo Institututik hasita KORRIKA TXIKIA + Ongi etorria Santa Eugenia plazan.

17:30–19:30: Santa Eugenia plazan ZIRKO TAILERRA ("Zirko Zirkus" konpainia) + TXOKOLATADA

### APIRILAK 5

17:30: San Nikolas plazan TAILERRAK + MUGI-MUGI DISKO-FESTA

20:00: San Nikolas plazan DANTZA PLAZA

21:00: San Nikolas plazatik ELEKTROTXARANGA + POTEKO

### APIRILAK 6

02:00ak aldera KORRIKA NAGUSIA GETXON



## Alberto San Juan eta Fernando Egozcue Musika Eskolan berriro

Larunbatean, martxoak 18, 20:00etan, Andrés Isasi Musika Eskolan *España ingobernable* izeneko poesia eta musika errezitaldia izango da, Alberto San Juan aktorearen eta Fernando Egozcue gitarra-jotzailearen eskutik. Ikuskizunerako sarreraren prezioa 12€koa izango da. Oraingoan, estatuan egun bizi izaten ari garen egoeraren inguruko ahotza altxatzen dute abesti eta testu haserretuekin. Ikuskizunean politikariak, kazetariak, etxebekoa, baztertutakoak, aberatsak, babesik gabekoak... agertzen dira.

*España ingobernable* lana egungo historiako herritarren borrokari buruzko hainbat paisaiak eta melodiak osatzen dute.

San Juan eta Egozcue Getxon ere izan ziren 2014an *Todo dice que sí* izenburuko obrarekin.

# ASTE SANTUKO KIROL CAMPUSAK

Antolatzailea	Programa	Adinak	Datak eta ordutegia	Prezioa	Harremanetarako
Getxo Gimnasia Erritmikoko Kluba	Gimnasia erritmikoarekin lotutako jarduerak Fadura	5/18 urte	Apirilaren 10etik 21era 8:30-13:30	60/80€	Eposta: <a href="mailto:club_ritmica_getxo@hotmail.com">club_ritmica_getxo@hotmail.com</a> Tel.: 685 545 032
Gurea Getxo	Kirolanitz eta futbola Fadura	6/14 urte	Apirilaren 10etik 21era 8:30-14:30	25/180€	Eposta: <a href="mailto:admin@kiroletansport.info">admin@kiroletansport.info</a> Tel.: 946 085 933 / 664 570 994 / 662 940 436
Getxo Saskibaloia Taldea	Saskibaloia Gobelan	6/14 urte	Apirilaren 10etik 21era 8:30-14:30	25/140€	Eposta: <a href="mailto:getxosaski@gmail.com">getxosaski@gmail.com</a> Tel.: 657 773 523
Getxo Igeriketa eta Waterpolo Taldea	Igeriketa, kirolanitz eta tailerak Fadura	4/12 urte	Apirilaren 10etik 21era 8:30-14:30	20/110€	Eposta: <a href="mailto:getxoibke@gmail.com">getxoibke@gmail.com</a> Tel.: 663 871 318
Getxoko Hondartzak Tennis Kluba	Tenisa eta kirolanitz Fadura	6/18 urte	Apirilaren 10etik 21era 8:30-14:30	105/190€	Eposta: <a href="mailto:tenisplayasdegetxo@gmail.com">tenisplayasdegetxo@gmail.com</a> Tel.: 685 751 688
Fadura Tennis Kluba	Teniseko teknifikazioa Fadura	8/18 urte	Apirilaren 10etik 21era 9:30-14:30	80/105€	Eposta: <a href="mailto:tenisfadura@gmail.com">tenisfadura@gmail.com</a> Tel.: 609 400 742
C.D Arenas-Romo	Futbola Gobelan	5/14 urte	Apirilaren 10etik 21era 8:30-14:30	25/130€	Eposta: <a href="http://www.romoarenas.com">www.romoarenas.com</a> Tel.: 657 268 606
Getxo Azkarrenak Irristaketa Kirol Kluba	Irristaketa eta kirolanitz Gobelan	3/12 urte	Apirilaren 10etik 21era 8:30-14:30	25/130€	Eposta: <a href="mailto:ander.i@clubpatinajelineagetxo.com">ander.i@clubpatinajelineagetxo.com</a> Tel.: 664 570 994
Getxoko Aixerrota Boleibol Kirol Taldea	Boleibola Fadura	8/15 urte	Apirilaren 10etik 21era 9:30-13:30	70/130€	Eposta: <a href="mailto:campusvoleigetxo@gmail.com">campusvoleigetxo@gmail.com</a> Tel.: 654 738 779
Show Getxo Irristaketa Kluba	Irristaketa Andra Marin	4/12 urte	Apirilaren 10etik 21era 9:30-13:30	65/140€	Eposta: <a href="mailto:info@cpsshowgetxo.com">info@cpsshowgetxo.com</a> Tel.: 615 501 624
Getxo Xake Kluba	Xakea tresna pedagogiko eta sozializtaile bezala Fadura egoitzan eta Gobelan	6 urtetik gora	Apirilaren 10etik 13ra eta 18tik 21era (8:30-13:00) (8:30-18:30)	38/157€	Eposta: <a href="mailto:info@damagaztea.com">info@damagaztea.com</a> Tel.: 688 677 874
Haszten Elkarte	Inklusio eta egokituko campusa Getxo Saskibaloia Klubarekin eta Getxo Azkarrenak Irristaketa Kirol Klubarekin elkarlanean	8/18 urte	Apirilaren 10etik 21era 9:00-14:00	20€/eguna	Eposta: <a href="mailto:hasztenkirola@gmail.com">hasztenkirola@gmail.com</a> Tel.: 699 609 588
Getxo Errugbi Taldea	Errugbia eta kirolanitz Fadura	8/14 urte	Apirilaren 10etik 21era 9:00-14:00	50€/astea	Eposta: <a href="mailto:getxorugby@getxorugby.org">getxorugby@getxorugby.org</a> Tel.: 688 874 714
C.D. Getxo	Futbola Fadura	5/14 urte	Apirilaren 10etik 21era 9:00-14:00	30/120€	Eposta: <a href="mailto:campusgetxofutbola@gmail.com">campusgetxofutbola@gmail.com</a> Tel.: 615 982 663

## Prestakuntza klubentzat

Getxo Kirolakek prestakuntza programa bat antolatu du udalerriko kirol-klubentzat, horien kudeaketan eta administrazioan arazoak sortu ohi dituzten gaiak aztertzeko. Izan ere, programaren barruan sei jardunaldi egingo dira aurten; horietan, parte hartuko duten klubek beren eguneroko lanean dauzkaten zalantza, kezka eta ardurak mahaigaineratu ahal izango dituzte. Jardunaldiotan, informazioa nahiz prestakuntza teoriko-praktikoa eskainiko dute hainbat adituk, kirol-klubaren aholkularitzan esperientzia duten espezialistak. Besteak beste, honako gai hauek jorratuko dituzte: kirol-klub baten funtzionamendua, haren antolatzen edo garatzen dituen jarduerak, datu pertsonalen babesa, erantzukizuna eta aseguruak, lan-kontuak eta araubide fiskala. Lehenengo jardunaldia ostegun honetan, hilak 16, egingo da, 19:00etan Fadura ekitaldi-aretoan. *Kirol-klubaren funtzionamendua* goiburupean, Borja Osés abokatuak emango du.

### Bazkide laguna dohainik, Arenasen partidan.

Arenas taldeko Zuzendaritzak Gobelako zelaira zale gehiago joatea nahi du datorren larunbatean, hilaren 18an, jokatu duen partidura. San Sebastián de los Reyes taldearen aurka jokatu dute, 18:30ean. Hartara, bazkide bakoitzak lagun bat eraman ahal izango du, bazkide-txartel bakarra erakutsita. Gogoratu, irabazten badu, Arenasek 2. B Mailari eutsiko dio beste denboraldi batez.

## Parte-hartze izaerako aurrekontuak. II. FASEA Proiektuak lehenestea

Martxoaren 14tik 23ra



HABetan, eta Andra Mari, Gobela eta Fadura kiroldegietan jarritako kutxen bidez.



Proposamena [gobernuirekia@getxo.eus](mailto:gobernuirekia@getxo.eus) helbidera bidaliz.



[www.getxo.eus/gobierno-abierto](http://www.getxo.eus/gobierno-abierto) udal webgunean egokitutako galdetegi digitala betez.



Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokien inguruetan jarritako postontzien bitartez.



Informazio karpeta, martxoaren 16an Algortako Geltokia plazan, eta martxoaren 17an Areetako Geltokia plazan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.



**Getxo**  
*bizi ezazu*

**LAGUNDU GETXO HOBETZEN!**

<http://www.getxo.eus/gobierno-abierto>